

### **13. FITXA GIPUZKOA – Etorkizuna Eraikiz Gipuzkoa Taldean proiektuen programaren dirulaguntzak.**

**Nori zuzendua:** Unibertsitateak, lanbide-heziketako zentroak, elkarteak, fundazioak, enpresa publiko eta pribatuak, **udalak, mankomunitateak, garapen-agentziak eta/edo interes ekonomikoko taldeak.**

**Sarbide-esteka:** [Laguntzak, bekak eta dirulaguntzak - Egoitza elektronikoa - Gipuzkoako Foru Aldundia](#)

**Erreferentziazko araudia:** [Etorkizuna Eraikiz Gipuzkoa Taldean proiektuen programaren dirulaguntzen lerroen oinarri arautzaileak eta 2024ko deialdia](#)

**Eremuak:** Gipuzkoa kohesionatua, pertsonen ongizate fisiko eta emozionala, emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna, gazteei aukerak eskaintzea, ardura komunitarioa, elkarte-sarea, Lurralde oreka berdea, Administrazio publikoen eraldaketa edo berrikuntza ez-teknologikoa

**Zenbatekoa:** 600.000 € (1. lerroa: Proiektu esperimentalak: 500.000 €; 2. lerroa: Esplorazio proiektuak: 100.000 €)

**Eskabideak aurkezteko epea:** 2024/04/30 (12:00)

## **Laburpena**

Deialdi hau bi kategoriatan banatuko da:

- a) **Proiektu esperimentalak:** Gipuzkoak dituen erronkei erantzuna emateko planteatzen diren proiektu berritzaileak, eragile ekonomiko eta sozialek bultzatutakoak (Oinarrien I.1 eranskina). Proiektu esperimentalen helburua alde aurretik diseinatutako proiektuak ezartzea da, eta esperimentazio maila aurreratua aurreikusi behar dute. Proposamen horiek inspiratzaileak eta garrantzi sozial handikoak dira, inpaktu handia izatea espero da, eta hedapen-estrategiaren proposamen batekin batera etorri behar dute.
- b) **Gipuzkoak dituen erronka nagusiei buruzko esplorazio proiektuak** (Oinarrien I.2 eranskina): hipotesi edo ideia inspiratzaileetatik abiatuta gerora esperimentaltzat har daitezkeen proiektuak definitzea helburu duten proiektuak dira. Horietan, esperimentazioa oinarritzko mailan planteatzen da, eta dagozkion kontraste eta testatzeekin batera etorri behar dute, baita bideragarritasun-analisi batekin ere, inplementatu ahal izateko.

Proiektu esperimentalek zein esplorazio proiektuek honako erronka hauei erantzun behar diete nahitaez, lankidetzan garatzeko, eta osagai berritzailearekin: Gipuzkoa kohesionatua, pertsonen ongizate fisiko eta emozionala, emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna, gazteei aukerak eskaintzea, ardura komunitarioa, elkarte-sarea, Lurralde oreka berdea, Administrazio publikoen eraldaketa edo berrikuntza ez-teknologikoa.

## Diruz lagundu daitezkeen jarduketak

**1. lerroa: Proiektu esperimentalak.** Berrikuntza jarduerak barne hartzen dituzten proiektuak, eta hauetara bideratuta daudenak:

- Gipuzkoan eraldaketa sozial eta ekonomikoa dinamizatzeko prozesua aktibatzea, horretarako elkarlanean oinarritutako proiektu multzo berritzaileen bitartez Gipuzkoako erronka estrategiko handiak abaguneetan eraldatzeko dinamikak sortuz.
- Eremu zehatzetan esku-hartzeko proiektu praktikoa multzoa sortzea, garapen prozesuen izaera berritzailea izanik, gida bezala balio dezaketenak ondoren zabaldu, hedatu eta errepikatzen.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoaren kapital sozialari probetxu ateratze aldera eta praktikara bideratutako ikuspuntu integratzailearen bitartez, elkarlanean oinarritutako proiektu mota berriak eta ekimenak artikulatzea.
- Agertoki praktikoa edo abian jartzeko bultzada erabakigarria behar duten proiektu berritzaileen alde egitea, horretarako Gipuzkoako Foru Aldundiaren babes, laguntza ekonomikoa, aginte zein elkarrizketa gaitasuna baliatuz.
- Jatorri askotariko eragile sozioekonomiko dinamizatzaile berrien identifikazio eta artikulazio dinamikak sortzea. Era berean, egituratutako partaidetza modu berriak eta elkarlan publiko-pribatuak bultzatzea.

**2. lerroa: Esplorazio proiektuak.** Gipuzkoak dituen erronkei aurre egiteko ikuspegi berriak dituzten proiektu berritzaileak. Eraldatzeko ahalmen handia dute, eta erronka horien eremuan eragina izango duten emaitzak sortzea espero da. Hala ere, ez daude behar bezain helduak beren hedapenean eta esperimentazioan inpaktu potentziala lor dezaten.

**Diruz lagundu daitezkeen gastuak** dira erakunde eskatzaileak aurkezten duen jardueraren aurrekontu xehatu eta zehatzean jasota egonik, diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak eta oinarri arautzaileetan ezarritako epean egiten direnak. Zehazki:

- Langile-gastuak. Langileek proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da, bai eta orduko kostuaren kalkulua ere.
- Ikerketa kontratuko kostuak, jakintza teknikoko kostuak eta lortutako patente edota kanpoko iturri batetik merkatu-lehiaketa maila osoz arituta lortutako lizentzien kostuak.
- Proiektutik zuzenean eratorritako gastu orokorrak.
- Bestelako ustiapen gastu osagarri batzuk, material, hornikuntza, nahiz proiektutik zuzenean eratorritako produktu berdintsuen kostuak.
- Diruz lagundu daitezkeen gastuak dira zeharkako gastuak, diruz lagundutako jarduerak erakunde onuradunak garatutako gainerako jardueretikiko duen proportzioaren arabera.

## Gastuetarako aldi hautagarria

Eskabidearen xede diren jarduketak **2024ko urtarrilaren 1etik 2025eko urriaren 15era** bitartean gauzatu beharko dira, eta jarduketa horien gauzatze osoaren justifikazio-kontua 2025eko azaroaren 15a baino lehen aurkeztu beharko da.

## Laguntzen zenbatekoa

Norgehiagoka bidezko deialdia. Minimis trataeraren araberakoa.

- **1. lerroa: Proiektu esperimentalak.** Proiektuek **gutxienez 60.000 €** izango dituzte diruz lagundu daitezkeen gastuen aurrekontuan. Dirulaguntzaren zenbatekoa diruz lagundu daitezkeen gastuen zenbatekoaren % 100 izan daiteke, eta **gehienez ere 80.000 €** proiektu bakoitzeko.
- **2. lerroa: Esplorazio proiektuak.** Proiektuek **gutxienez 10.000 €** izango dituzte diruz lagundu daitezkeen gastuen aurrekontuan. Dirulaguntzaren zenbatekoa diruz lagundu daitezkeen gastuen zenbatekoaren % 100 izan daiteke, eta **gehienez ere 20.000 €** proiektu bakoitzeko.